

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Asteazkena, 2012ko otsailaren 15a. IX. urtea. 2.360. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Zizurkilgo adingabeen zentroko bizilagunek udalak gehiago egin dezakeela uste dute

Nahiz eta Foru Aldundiaren zentroa izan, udal arduradunek kokaleku «egokiago» bat bilatzen lagundu behar dutela uste dute

Zentroa ireki aurretik ez zuten itxiera eskatu, baina jarreraz aldatu dute «sistemak behin eta berriz funtzionatzen ez duela ikusita» ◻4

Larramendiko lurperatzearen aldeko lantaldeak batzordea utzi du

Auzoko lanen inguruan hitz egiteko Tolosako Udalak sortutako partaidetza taldeak ia ez duela ezer erabakiko salatu du ◻3



Sortu berri duten konpartsako kideetako batzuk, ekimenaren berri eman aurretik. I. GARCIA

On Ostegun Gizen pertsonaiak konpartsa estreinatuko du


50 bat lagun bilduko dira biharko konpartsa berrian; karroza bat ere egin dute, 'Txerrimobil' izenekoa, eta helburua Ostegun Gizenari eta inauteriei, orokorrean, zerbait berria gehitzea dela diote ◻2

Bedaioko beheko eta goiko aldeak batzen dituen herri bidea berreskuratu dute

Lehen zatia egin dute jada eta orain landaretzaren inguruko informazio panelak jarriko dituzte ibilbidean zehar ◻6



Herrigunera doan bidea ikusi daiteke irudian. HITZA



Prezio oso bereziak

Galtzerdiak 1€ eta 2€

Poloak 11€

Errementari Kalea, z/g
TOLOSA • Tel.: 943 67 16 30

NEREA
1962
LENTZERIA



On Ostegun Gizenak badu konpartsa

50 lagun inguru aterako dira, karrozarekin eta txarangarekin, biharko pertsonaiaren inguruan giro gehiago sortzeko

Imanol Garcia

Lagun kuadrila batek Ostegun Gizen egunari piper eta gatza gehiago jarri nahi dio. Horretarako, On Ostegun Gizen pertsonaiaren konpartsa osatu dute. Inaki Moyua konpartsa kideak ideia nola sortu zen azaldu du: «Orain urte gutxi estreinatuta zen pertsonaia eta orain osatu egin nahi dugu. Inauteriei beste zerbait gehitu nahi diogu, zerbait berria eta ezberdina».

50 lagun inguru elkartuko dira konpartsan, haur, gazte eta helduz osatutakoa. Karroza bat izango dute, *Txerrimobil* izenekoa, eta inguruan hainbat pertsonaia izango dira: txerri hiltzailea, urdaiazpiko moztaila, txorizo egileak, *txerrileadersak*, eta txorizo erraldoi eta hegalarri bat ere izango dute, inguruan harakinek. «Herri giroko zerbait egin nahi dugu, eta horregatik adin guztietakoak izango dira», esan du Moyua.

Giroa musikatzeko konpartsak bere txaranga izango du. Ez dute,



On Ostegun Gizen eta *Peggy*, udaletxeko balkoian. I. TERRADILLOS

baina, Ostegun Gizeneko doinuak. «Koldo Tarragonak bi abesti sortu ditu, habanera bat eta kalejira bat. Pakito Segurak habanera zarako hitzak idatzi ditu. Ostegun Gizen egunari eta pertsonaiari buruzkoak dira», dio Moyua. «Asko eskertzen diegu egin dutena». Abesti horiek joz eta abestuz egingo dute Alde Zaharrean zehar kalejira.

Eta nondik aterako da konpartsa? Kaleetan jarri dituzte karte-

lak, On Ostegun Gizenaren zein balkoietan azalduko den asmatzeko gonbitea eginez. Errementari kalean izango dela jakinarazi dute, baina ez dute etxea zein izango den zehaztu. 11:00etan aterako da eta ondoren hasiko du konpartsa kalejira. Txupinazoaren garaian iritsiko dira udaletxera, eta konpartsa kalean itxaroten duen bitartean, On Ostegun Gizen udaletxera igoko da, Kabi Alaiko udalbatzarekin elkartu

eta txupinazoa botatzeko. Festa lehertu eta gero, konpartsa bere ibilbidea egingo du kaleetan zehar. «Nahi duen guztia gonbidatuta dago gurekin batera ibiltzera, bai txupinazoaren aurretik eta baita ondoren ere», azaldu du Moyua. Goizeko kalejiraren ondoren, bazkaltzera joango dira konpartsa Urdiña Txiki elkartera. Gero, arratsaldean, txarangekin eta Kabi Alaiko korporazioarekin batera zezen plaza-

ra joango dira. Zezen plaza barrura sartuko dira ere eta gero, zezen festak irauten duen bitartean, kanpoan izango dira, zezen plaza ingurua alaitzen. Zezen festa bukatuta, Alde Zaharreko kalejira parte hartuko dute.

Konpartsa sortzearen ideia aspaldidanik dator. «Pertsonaia bera atera zenean, pentsatuta genuen konpartsa egitearena», dio Moyua. Azkenean, martxan jarri dira eta aurten aterako dute. «Jaz hasi ginen prestaketak egiten eta hileroko diruajartzen gastuei aurre egiteko». Urdiña Txiki elkartera izan da biltzeko gunea eta bertan egingo dute biharko bazkaria ere. «Asko eskertzen diogu Urdiña Txiki eman digun laguntza», zehaztu du Moyua.

Bihar, beraz, On Ostegun Gizen eta soinean daraman txerria izango dira eguneko protagonistetako batzuk. Konpartsa egiteko gogorazi nahi izan dute txerria emea dela eta *Peggy* izena jarri ziotela. «Hainbat istorio bizitu ditu dagoneko», esan du Moyua. «Lehenengo urtean lapurtu egin zuten eta gero ibaian topatu genuen. Konpondu behar izan genuen hurrengo urterako». Konpartsa parte hartzailea izatea nahi dute: «Nahi duenak parte hartu dezake eta ongi etorria izango da. Etor daitezela inauteriei umorez betetako hasiera ematera».

Zezen suzkoak kaleak aztoratuko ditu, bihar

Duela hamabost urte antolatzen du ekitaldia Ero Etxek; iaz Ostegun Gizen egunean atera zuten lehendabizikoz

I. Garcia

Ero Etxe elkarteak hamabost urte daramatza zezen suzkoa antolatuz inauterietan. Hasieran Astelenitan antolatzen zuten, baina iaz aldatzea pentsatu zuten

eta Ostegun Gizen eguneko arratsaldean egitea erabaki zuten. Iazko arrakasta ikusita aurten ere berriro egun berean egitea pentsatu dute. Ero Etxe elkarteak Isitxo Larrañagak gonbitea luzatu dio jendeari ekitaldian parte hartzeko: «Badago abesti bat, *Idiarena*, Tolosako zezen suzkoari buruz hitz egiten duena, eta elkartearen atera zen ekitaldia antolatzearen ideia. Herritarrei zezen suzkoan parte hartzea gonbidatzen diogu, berea egin dezatela ekitaldia». Astelenitatik Ostegun

Gizenera pasatzea ekitaldia indartzeko asmoz egin da: «Astelenitan konpartsa asko ateratzen dira eta zezen suzkoa galduta gelditzen zen. Iaz jende gehiago animatu zen eta ea gero eta gehiago animatzen diren».

Sua darion zezena, beraz, aurten ere bihar aterako da. Musika eskola ondoko iturritik hasiko du ibilbidea, 19:30ean. Bi zezen handi aterako dira, helduek eramateko. Beste bi txikiagoak izango dira, eta gaztetxoek eramanez ahaliko dute. Zezenak elkarrekin dira. Rondilla kaletik gora joango dira eta Trianguloan bukatuko dute ibilbidea. Trianguloan, gainera, zezen txikiak gainean eramanez nahi duten gaztetxoek aukera izango dute horretarako, beraien artean txandatu. Larrañagak dioenez, «Ero Etxe elkar-

teak antolatutako ekitaldiak gaztetxoek zuzendutakoak izaten dira, eta zezen suzkoaren asmoa ere hori da».

Aurten, helduen danborrada aurreratu denez, zezen suzkoa bukatu eta berehala hasiko da.

Lau zezen suzko aterako dira, bi helduek eramateko eta beste bi gaztetxoek

Hala, Ostegun Gizeneko arratsaldeko egitarauan izango diren ekitaldiak bata bestearen atzetik etorriko dira. Zezen plazako zezen festaren ondoren, kalejira egingo da Alde Zaharrean. Jarrera izango da zezen suzkoa, eta ondoren, 20:00ak aldera, hasiko da helduen danborrada.

→ Laburrak

Karrozek eta konpartsek hartu beharreko neurriak

KARROZAK > Tolosako Udalak karrozek eta konpartsek bete behar dituzten neurriak gogorazi ditu ohar batean, beste urteetan jasotako kekei irtenbidea emateko asmoz. Hala, soinu ekipoez egingo dute 1.500 w-ko muga gainditu eta ezarritako ordutegia errespetatu beharko dute kalean ibiltzeko: 08:00etatik 01:00etara.

Udaletxeko bulegoak itxita, inauterietan

UDALA > Udaletxeko bulegoak itxi egingo dira datorren Ostegun Gizenan 12:00etatik aurrera, hurrengo ostegunean, hilak 23, berriz ere atek zabaldu arte, Tolosako Udalak jakinarazi duenez. Bitarte horretan, udaltzaingoa lanean jarraituko du, inauterietan ohikoak diren zerbitzuez gain, larrialdiei bidezko erantzuna ematen. Larrialdietarako 943 67 58 58 telefono zenbakira deitu ahaliko da.

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Beti Alai
jatekoa

Garaian
garaiko janariak
Arraikietan berezia

943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Errementeri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

Lurperatzearen aldeko lantaldeak bide judiziala jorratzea aztertuko du

Tolosako Larramendiko obra bizilagunei «saldu eta iragarri» zitzaien moduan egiteko eskatu diote lanen sustatzaileei

Rebeka Calvo

Tolosako Larramendi auzoko lurperatzearen aldeko lantaldeak argitu duenez, aurrerantzean lurperatzea egitearen aldeko ekimenak burutuko dituzte. Eta zentzu honetan, obren sustatzaileei buruofax bat bidali diete urbanizazioa «saldu eta iragarri» zitzaien moduan gauzatu dezaten eskatuz. «Hau da, erosketan zehar saldu zitzaigunarekin eta gure eskriturak loturik dauden arau subsidiarioekin ados», azaldu dute lantaldeko partaideek. Eskaera gauzatu ezean, «kaltetuak garen aldetik» bide judiziala hartzera behartuta egongo lirartekeela diote lurperatzearen aldekoek.

Horiek horrela, lantaldeko kideek bizilagun arruntak direla nabarmendu nahi izan dute: «Gure ekimenak ez daude politikara bideratuta, bizilagun arruntak gara, bakoitzak bere ogibidea du eta gure eskubideak defendatzeko lanean ari gara». Partaide-tzaren alde egon daitezkeela diote, baina «ez eskubide batzuen urraketen gainetik». Zentzu ho-



Lurperatzea irudian ikusten den tokian egingo lukete. I. GARCIA

netan Tolosaldeko Udalak proposatutako erreferendumari zentzurik ikusten ez diotela diote: «Gure etxea urbanizazio batekin saldu ziguten, lurperatzearekin, plaza handi batekin, ia autobidera iristen den Uzturre kalearekin. Ordaindu eta gero beste gauza bat eman nahi digute».

Batzordea utzi dute

Era berean, udalak bideratutako batzordea lehen bilera eta gero utzi izanaren arrazoiak ere eman dituzte. Batetik, beren ustez udalak sustatzen duen partaidetza «hitz hutsa» da: «Ia ezer erabakitzeko helburuarekin sortu da partaidetza batzordea. Bakarrik auzokoei bi aukeren informazio parekatua zein formatutan iritsiko zaien bideratzeko». Batzorde horretan proiektuak hobetzeko le-

kurik ez dagoela ere esan dute, eta baita erreferendumean plataformako kideen parte hartzearekin udalaren «ustezko» partaidetza «zuritzea» eta hau legitimatzea besterik ez lukeela lortuko udalak.

Urtarrilaren 31ko osoko bilkuran onartutakoaren inguruan ere hitz egin dute lantaldeko kideek. «Nahiz eta udalak adostasun batzarrarekin hitzartutako akordioari esker, obraren sustatzaileak edozein erantzukizun judiziale-tik aske geratuko diren eta erantzule udala bera izango den, guk beti sustatzaileak salatuko ditugu beraiek baitira gurekin hitzarmena dutenak. Hala ere, gure ondoeza adierazi nahi dugu udalak bizilagunekiko egiten ari den ekintzetan erakusten ari den garrantasun eza dela eta».

Gutuna

Zehaztasun eta argibideak

Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde plataformak otsailaren 4ean *Diario Vasco* egunkarian Asuncion Klinikak argitaratutako eskutitzari modu honetan erantzun nahi dio.

1. Zerbitzu berrien inguruan. Klinikak dioenez, hitzarmena sinatu ondoren, zerbitzu berriak jarriko ditu martxan. TOPAK hau zehaztu nahi du. Batetik, klinikarentzat eskaintza berriak izango direla, baina ez direla osasun zerbitzu berriak Osakidetza-entzatek. Era berean, etxeko ospitalizazio zerbitzua sare publikoak oso modu egokian betetzen zuen Donostia Ospitalerik bideratuta. Eta bestetik, gaixo kronikoen ospitalizazioko unitatea eta uzki minbiziaren *screeninga* eskualde guztietan zabaltzen joango diren zerbitzuak dira, ez bakarrik Tolosaldean, Eusko Jaurlaritzaren osasun politikaren ondorio bezala.

Klinikak zerbitzu hauek bere gain hartu baditu, bi arrazoi daude: lehenengoa, beraiek Osakidetza-entzatekin sinatutako hitzarmenak hala eskatzen duela, eta bigarrena, diru publiko gehiago jasoko dute zerbitzu horiek emateagatik. Aldiz, ZIU (UCI) eta kirurgia plastikoko zerbitzuak desagertuko dira, ez baitute diru publikorik jasoko hauek mantentzeagatik. Ez digu ezer oparitzen.

2. Zabaltze lanei buruz TOPAK argitu nahi du egungo udal gobernu dela baliozko batzorde eman duena zabaltze lanen baimena (aurreko alkateak dekretuz emandakoa), bertan agertzen diren irregulartasunengatik. Klinikak, udal zergak ordaindu behar ditu Tolosaldeko edozein bizilagun bezala.

3. Lanaren datuak. Klinikak ematen dituen zenbakiak espezialitateetako anbulatorioaren etengabeko desgitearen ondorio dira. Gaixoen klinika kontzertaturako desbideraketa Osasun sailaren Lurralde Zuzendaritzak bultzatu du eta horregatik igo dira nabari kopuruak.

4. Anbizio handiko proiektua klinikako kudeatzaileen aldetik

(INVIZA SA), beraiek oso ondo esaten duten bezala, ANBIZIO HANDIKOIA da. Asmo nagusia ez baita lanpostu gehiago sortzea beren idatzian ulertarazi nahi duguten bezala, baizik eta gure osasunarekin negoziatioa egitea.

5. Eskualdeko ospitale publiko batekin parekatzea. Ezinezkoa da klinika eskualdeko ospitale publiko batekin parekatzea. Nahiz eta Gomez Montoya jaunak nahi izan (INVIZA SA-ko kudeatzaile nagusia) edo Begiristain jaunak esan (Osasun saileko Lurralde Zuzendaria), zerbitzuak eta kalitatea ez dira konparagarriak, TOPAK pasaden urtarilaren 21eko batzarrean frogatu zuen bezala.

6. Asetze maila. Klinikarentzat asetze maila handia da, baina bizilagunek iritzi desberdina dute. Egoera berri honetan, erabiltzaileen asetze maila Osasun saileko Lurralde Zuzendaritzan aurkeztu diren kexa eta erreklamazioetan ikusten ari da (dagoeneko 70 baino gehiago). Kalitate kontrola bizilagunok egiten jarraitu behar dugu.

7. Tolosaldeko bizilagunek bere sinadurekin, manifestazioekin eta elkarretaratzeekin eskatzen dutena da eskualdeko ospitale publikoa eta espezialitateen anbulatorioa mantentzea. Bidegabekoa iruditzen zaiguna zera da, osasun irizpideetan baino, interes politiko eta ekonomikoetan oinarritutako hitzarmen bat sinatu izana.

Informazio hau osatu nahi duenarentzat, gure blogean aurkituko dituzte gehiago, www.osasunpublikoa.blogspot.com-en. Webgunean batzarraren bideoa agertzen da, egoera honen ikuspuntua aberasten duten azalpen gehiagorekin batera.

■ **Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde** plataforma.



Irudia Tolosa



GARTZIA ARTETXERI OMENALDI BEROA

Luis Mari Gartzia Artetxek bere azken kontzertua zuzendu zuen musika bandako zuzendari gisa, igandean, Berdura plazan. Emanaldia omenaldia ere izan zen, eta bertan alkateak eta Kultura zinegotziak, Udal Txistulari Bandak eta Udal Musika Bandak eman zizkioten opariak eta musika bandako bi kidek Agurra dantzatu zioten. Hotz handia egin zuen, baina giroa beroa zen. HITZA

Iragarki laburrak

LANA

■ **Eskaintza.** Pertsona bat behar da 2 ume zaindu eta etxeko lanetan laguntzeko. Autoa behar da. 669 36 90 08.

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Villabonako Errota auzoan etxebizitza salgai. Interesatuak, deitu 619 770458 zenbakira.

GALDUTAKOAK

■ **Erantzuna.** Zilarrezko pieza borobila duen eraztun beltz bat galdu nuen Tolosan larunbatean (otsailaren 11n) Zerkau-siaren inguruan. Aurkitu duenak dei dezala 625 709611 zenbakira.

Jose mari jatetxea Ihauteritan menu bereziak Etorri!	Lehen menua Angula freskoak Baserriko oilaskoa edo txuleta Pastrea Kafea Crianza rioja edo sagardoa	Bigarren menua Tolosako bobarrunak Lenguada "menière" edo baserriko oilaskoa Pastrea Kafea Crianza rioja edo sagardoa
	60€	27€
	Erreserbak egiteko deitu 943682942 Osoak 11,12 Lizartza Lizartza Osoak 16-18 21-ene, Tolosa	
	Erreserbak egiteko deitu 943682942 Osoak 11,12 Lizartza Lizartza Osoak 16-18 21-ene, Tolosa	

«Kokaleku egokiago bat bilatzen lagun dezake udalak»

Adingabeen zentroaren inguruko bizilagunek bere desadostasuna azaldu dute udalak zentroaren inguruan esandakoekin

Asier Imaz Zizurkil

Zizurkilgo adingabeen zentroaren inguruan, inguruko bizilagunak ez datoz bat udalarekin, ez behintzat hainbat puntutan. Desadostasun hori azaltzeko, HITZAK otsailaren 9an kaleratutako Nerea Lizarraga alkateordearen elkarrizketa hartu dute oinarri.

Adingabeen zentroaren inguruko bizilagunek, udalari zeresana eta zeregina baduela esan dio-

te: «Beste kokaleku egokiago bat bilatzen lagun dezake». Nahiz eta bizilagun kaltetuenak paretarekin bat egiten dutenak izan, gairontzekoek ere iskanbilan eraginak jasaten dituztela diote.

Lizarragari egindako elkarrizketa irakurri eta aztertu ondoren, puntuz puntu azaldu dituzte desadostasunak. Gaiaren inguruko euren jarrera eta iritziak ere argi azaldu nahi izan dituzte bizilagunek, nahiz eta komunikabideetara joatea ez duten gustuko.



Zizurkilgo adingabeen zentroaren atarian ateratako argazkiak. HITZA

↓ Adingabeen zentroaren inguruko bizilagunen ezadostasunak eta iritziak

■ **Eskumena.** «Ez gaude ados udalaren ikuspuntuarekin, ezer gutxi egin dezaketela edo esku-hartzerik ez duela esaten dutenean. Nahiz eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren zentroa izan, eta kudeaketa diputazioaren esku egon, udalak beste kokapen egokiago bat bilatzen lagun dezake».

■ **Diputazioa.** «Zentroa ireki aurretik eginiko bileretan ez ziren Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak egon. Garai hartan Esther Larrañaga anderea eta Madrazo jauna ziren gai honetan diputazioaren arduradun, eta ez ziren udaletxean egin zen bilerara azaldu. Azaldu ez zirenen lekuko bezala bilerako akta dugu, Maria Angeles Lazkanok sinatua 2006ko urriaren 26an, eta ondorengo idatzietan horrela ikusten da. Foru aldun-

diak komunikabideen bitartez iragarri zuen zentroaren irekiera, eta zentroari buruzko informazioa bizilagunok eskatu behar izan genuen. Gainera, ez ziguten lehenbiziakoan eman, eta behin eta berriz eskatu behar izan genuen, idatziz bidali ziguten arte. Diputazioaren dinamika hasiera batetik urruntasuneko eta ezkutuko izan zen, eta ez du proaktibotasunik erakutsi».

■ **Sistema.** «(Idatziz, '13-18 urte bitarteko arazo gabeko adingabeok' etortzekoak zirela zioten arren, Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du esandakoa bete, hau da, adin gatazkatsua sartu ditu sistematikoki eta iskanbilak behin eta berriz izan ditugu. Adingabeen zentro honetara iritsi diren adingabeen diagnostiko eta balorazioek huts egin

dute behin eta berriz, bizilagunei min handia eginez, sistemak akatsak dituela eta erreakziozko gaitasunik ez duela erakutsiz».

■ **Zaratak.** «Nerabeak bizi diren etxe batean 'zaratak' egotea normala dela esatea ez da bigarrena. Iskanbilerik buruz ari garen honetan honakoaren lekuko gara esan nahi dugu: bai egunezko edo gauezko soinu eta gatazkak (gauekoak itzelagoak izanik), zaintzaileek salatzen ez dituzten adingabeen ihesak, etxeguneko eta bizilagunei hondaketak, bizilagunen etxera sarketak, bizilagunei eta zaintzaileei irainak, indarkeria fisikoa eta abar. Hau guztia dokumentatua dago».

■ **Itxiera.** «Bizilagunek zentroa ireki aurretik ez genuen itxiera eskatu, eta horren froga bezala erakunde publiko ezberdinetara bidalitako idatziak daude. Egoitza ireki zenetik errespetuzko eta gizarteratzeko jarrera mantentzen saiatu gara, baina sistemak behin eta berriz funtzionatzen ez duela berriki dugu. Gainera, zentroaren itxiera eta leku aldaketa eskatzen hasi gara azken urte honetan. 2007-2010 bitartean ez genuen zentroaren itxiera eskatu. Garai horretan, behin eta berriz, iskanbilak sartu eta aitzin neurriak har zitezela besterik ez genuen eskatu».

■ **Udala.** «Zentroaren kokapena ezegokia dela salatzen dugu

eta udalak, bizilagunei lagun-tzeko zentroaren itxiera eta leku aldaketa eskatu beharko lukela uste dugu. Gipuzkoako Foru Aldundia laguntzekotan, berriz, herrian beste etxebizitza egokiago bat aurki lezake. Gu ere ados gaude horrelako zentroak beharrezkoak direla, baina kasu honetan kokalekuarekin hanka sartu dutela uste dugu. Zizurkilgo Udalak, beraz, bere esku dagoen guztia ez duela egiten ari adierazi nahi dugu: Ausardia falta zaio».

■ **Ertzaintza.** «Zizurkil herri txiki bat da, eta babes neurri eskasak ditu. Ez dauka etengabeko udaltzain zerbitzurik, ez gauez eta ezta asteburuetan ere, eta Hernaniko Ertzaintzaren Komisaldetara (15 km) jo beharra izaten dugu, eta honek jardueran atzerapen bat ekartzen du. Hala ere, Ertzaintzaren jarrera eskertu nahi dugu, laguntza eskatu diegun bakoitzean beti egon izan baitira, Adingabeen Legeak jartzen dizkien mugak kontuan izanda, eta komisaldetara hain urrun egonda».

■ **Legearen berrazterketa.** «Adingabeei harrera emateko dagoen sistema berriz aztertu beharko litzatekeela azpimarratu nahi dugu, eta 131/2008, uztailak 8ko dekretuan agertzen diren baldintzak aztertu beharko liratekeela. Horrelako zentro batek etxebizitza zonalde batean egon beharrik ez du

esan nahi zehazki pareta partekatuta behar denik, eta gertatzen denaren lekuko izan».

■ **Begiraleak.** «Nahiz eta begiraleak 24 orduz egon, iskanbilak eta krisialdiak daudenean ez dira gai hauei aurre egiteko. Berriengana laguntzera edo beste zerbaitezara hurbildu garen bakoitzean mesfidantzaz jokatu dute, zerbait ezkututzen ariko balira bezala».

■ **Urruntasuna.** «Etxegune honetako bizilagunok nahikoa ikusi eta entzun dugu, eta ez dugu gehiago nahi. Sistemak dituen hutsunak eta erakunde publikoen urruntasuna jasan ditugu».

■ **Leku aldaketa.** «Nerabe gatazkatsua bat zentroz aldatzeko erabakia hartzeko bi hilabeteko denboraldia lotsagarria da, eta intsonorizazio gehiago egin beharrik arazoak daudela onarrazten du».

■ **Politika.** «Politikoki onarpenik ez duen gai honen inguruan guztiz alde batera utzita gaude la azaldu nahi dugu. Gu bizi garen zonaldeak ez dauka masa kritiko erabakigarriarik alarma soziala sortzeko, eta bakardadean sufrizten aritu gara urte hauetan guztietan. Guretzat ez da batera gustukoa izan komunikabideetan azaltzea gudan arreta jar dezaguen eta eskerrak ematen dizkiogu kasu honetan fijatzen zen komunikabideetako profesionalari».



Tolosan etxe adosatua salgai:

eguzkitsu, lau gela, bi bainugela, komun, egongela-jangela handia, sukalde, bi autorentzako garajea, txokoa, jardina eta trastelekua.

Interesatuak, deitu
678 267657
telefono zenbakira.

Hainbat herritan gaur hasiko dituzte inauteriak

Anoetan, Asteasun, Villabonan eta Zizurkilen haurrak mozorroturik irtengo dira kalera

A. Imaz

Anoetako herri ikastolak gaur ospatuko du inauterietako jaialdiaren 25. urteurrena, 19:00etan, kiroldegian. Urte berezia izanik, urteotan egindako emanaldiei begirada bat botako diete, eta aukeraketa horretatik irtengo dira plazaratuko dituzten antzezlanak. Asteasun, urteroko ohiturari jarraituz, inauteri jaia egingo dute etzi, hilaren 17an. Haurrak sorgin mozorroekin irtengo dira kalera, eta dantza egingo dute Lamitegin, su baten inguruan. 16:15ean, eskola amaituta, kalejira bat egingo dute herrian barrena. Zezen suzkoa eurekin ibiliko

dute, eta parrilla bat jaitziko dute oilasko batzuk erretzeko. Antolatzaille lanetan dabilzan guraso taldeak, herritar guztiak animatu ditu inauteri jaira.

Villabona eta Zizurkilgo jaia

Villabona eta Zizurkilgo ikastetxeek ere inauteri jaia antolatu dute, herritar guztiei zabaldua. Villabonan Ostegun Gizenean egingo dute festa, udaletxe aurrean emanaldia eskainiz eta 15:00etatik aurrera herri guztian zehar kalejira eginaz, eta Zizurkilen, Ostiral Mehean. Kasu honetan, lehenbizi desfilea egingo dute, eta ondoren, plazan, emanaldia. Villabonako Jesusen Bihotza ikastolakoak estralurtarrez mozorrotuko dira, eta Zizurkilekoak margolariz.

Bi herrietako udalak ere jaiarekin bat egin dutela azaldu dute ikastolatik, desfilea izango da lehendabizi eta bukatzeko, emanaldia plazan.

→ Laburrak

Guardia Zibila Gaztetxearen atarian

ANOETA › Gazte Asanbladatik azaldu dutenez, aurreko asteartean, otsailaren 7an, Guardia Zibilaren hiru auto (guztira 12 bat guardia zibil) joan ziren Anoetako Gaztetxe atarira. Bertan 30 minutu inguru egon zirela azaldu dute, Gaztetxera zein alboko musika lokaletara zihozazenei identifikazioa eskatuz, eta motxilak eta kotxeak miazuz. Horrez gain, Gaztetxe inguru eta terraza arakatzan aritu zirela esan dute; «guztia inolako azalpenik eman gabe». Gazte Asanbladako kideek gertaera salatu nahi izan dute, «probokazio eta eraso bat dela uste dugulako; horrelako ekin-tzekin gazteak beldurtzea lortu nahi badute, jakin dezatela gurekin jai dutela, eta tinko jarraituko dugula gure helburuak lortzeko bidean».

Aurrekontuen inguruko bilera gaur, 19:00etan

ASTEASUN › Udaletik azaldu dutenez, aurrekontuen inguruen bilera irekia eta zabala egingo dute gaur, hilak 15, herri-tarrekin udaletxean. Asteasuarrei, beraz, 19:00etan udaletxe-ko bideo aretora agertzeko eskatu die Asteasuko Udalak, gai honen inguruan denen artean hitz egiteko eta eztabaidatzeko.

Sendabelarretarako ikastaroa, ostegunetan

ANOETA › Udalak sendabelarren ikastaroa antolatu du otsailaren 23tik martxoaren 29ra. Armaia Bastarrika izango da irakaslea, eta ikastaroak ostegunetan izango dira, 17:00etatik 19:00etara. Guztira sei klase emango ditu Bastarrikak. Izena emateko azken eguna hilaren 17a, etzi, izango da. Goizez udaletxera joan beharko da, eta arratsaldez liburutegira edo kiroldegira. Matrikula egin nahi duenak 50 euro ordaindu beharko ditu. Murrizpenak ere egongo dira: familia ugaria, langabetua, ikaslea, pentsioduna edo 60 urtetik gorakoek %25 gutxiago ordaindu beharko dute, eta gazte txartelarekin %10 jaitziko da matrikulazioa.

Binakako pilota txapelketa Beotibarren

TOLOSA › Inauteri giroa aprobetxatuz, pilota partida interesgarriak jokatuko dira Tolosako Beotibar pilotalekuan, hilaren 20ean eta 21ean. Eskuz binako txapelketaren bederatzigarren jardunaldiko bi partida jarri dituzte Beotibarren, 16:30ean hasiko diren bi jaialditan. Astelenitan, Titiñ III-Merino II.ak Aritz Lasa eta Pascualen aurka jokatuko dute. Asteartitan, ligaxkako liderrek azkenen aurka jokatuko dute; Olaizola II-Beroizek Arretxe II-Begino izango dituzte aurkari gisara. Sarre-rak Beotibarko leihatiletan egingo dira salgai.



Frantziako Poitierseko espetxean dago Maite Aranalde ibartarra. HITZA

Aranalde eta bere kideei elkartasuna azaltzeko Poitiersera joan dira

Poitierseko espetxe zuzendaritzak euskal presoan aurka «zigorrak sistematikoki» ezartzen dituela salatu dute

Asier Imaz Ibarra

Maite Aranalde euskal preso ibartarra Poitierseko espetxean aurkitzen da, Frantzian, Euskal Herriatik 550 kilometrora.

Larunbatean, Ibarrik hainbat herritar bertara joan ziren, Aranalde eta bere kideek bizi du-

ten egoera bertatik bertara salatzeko asmoz.

Ibarrik batera, Abadiño, Eskoriatza eta Berangoko jendea ere espetxe kanpoan elkartu zen, 100 lagun inguru, barnean zituzten herritarrei elkartasuna azaltzeko.

Poitiersen lau euskal herritar daude preso. Bertara joan ziren euskal herritarren esanetan, «espetxe zuzendaritzak euskal preso politikoei zigor sistematikoa ezartzen die Poitiersen: bisitarik eta patiorik gabe uzten dituzte, eta Mittard-a deituriko isolatzeak eguneroko ogi dira bertan».

Espetxearen kanpo aldean egindako elkarretaratzean, neurri hauekin amaitzeko eskatu zuten. Horretarako, txalaparta, musika, suziariak... eraman zituzten Poitiersera. 40 puzgarri ere airera bota zituzten, hogei banderola zintzilik zituztela. Hauetako bat espetxe-ko horman gelditu zen zintzilik, eta bertan egon zen bi ordu luzez, funtzionario batek kendu zuen arte.

Bestalde, Aranalderen sendiak azaldu duenez, ibartarrak bere iloba jaioberria ezagutzeko aukera izan zuen larunbat goizeko bisitan.

Irudia ◊ Amasa-Villabona



ZARIKIETAKO MENDIZERRAN BARRENA

Villabonako Aizkardi mendi taldeak antolatuta, 32 mendizalek elurraz eta mendiaz gozatzeko aukera izan zuten igandean. Azparren-Mendigaña-Zarikieta-Agoitz ibilbidea egin zuten, eta eguzkia

lagun izan zuten hainbat puntutan. Eguraldi ona izan arren, hotza ere lagun izan zuten. Zarikieta mendia zerra ezagutu zuten, eta oso gustura gelditu ziren bertako paisaia ederrarekin. HITZA

Bedaioko beheko eta goiko aldeak elkartzen dituen antzinako herri bidea berreskuratu dute; lehen zatia egin dute, eta bigarren zatia, panel didaktikoak jarritz, aurtien amaitzea aurreikusten dute.

Herri bidea berreskuratuta

Eneritz Maiz Bedaio

Bedaion herri bidea berreskuratu dute. Bide honek, Eskoletxe eta Bedaio Bitarte base-riak lotzen ditu, baina bi baserri lotzeaz gain, batez ere, Bedaioren beheko alde eta goiko alde lotzen ditu. Ohiko errepide nagusiarekin alderatuz, askoz ere denbora laburragoan lotzen ditu bi guneak. Oinezkoentzat egokitu dute, eta ibilbide atsegina egin nahi dute. Hogeita minututan Bedaioko kaskora iristeko aukera ematen du.

Bedaioko bizilagunen ideia nagusia, Bedaioko bi guneak lotzeaz gain, naturgune bezala Bedaio eskaintzen dituen ohiko mendi ibilaldiekin batera, beste maila bateko ibilaldi bat eskaintzea izan da. Hau da, «haur kotxearekin ere oso eroso egin daiteken ibilbidea da, eta 30 minututan asko jota Eskoletxetik Bedaioko kaskora igotzeko aukera ematen du», azaldu du Nekane Izagirrek.

Oinezkoentzat prestatzen ari diren bidea, bi zatitan banatuta egiten ari dira. Lehenik, bidearen zorua berreskuratu dute. Hau da, harri xehea bota dute. Lehen zati hau egina zegoen, baina uholdeek kaltetu egin zuten bidearen zati bat. Udala arduratuko da berriro konpontzeaz.

Bigarren zatian, ibilbideak berak eskaintzen duen ingurua ezaugarazi nahi dute. «Ibilbidearen lehen zatian dagoen erreka eza-



Harri xehea bota dute herri bidea berreskuratzeko; bota aurreko irudia da. HITZA

gutzera eman nahi da, eta arrantzarako zenbait txoko prestatu», adierazi du Izagirrek.

Naturguneak barrena

Honez gain, naturgunea dela kontuan harturik, bertako landaretzaren ezaugarriak ezagutzera eman nahi dituzte panel didaktikoen bidez. «Senda belarrak, zer egin daitekeen belarrekin, hau da, xaboiak, ukenduak, ...», nabarmendu dute.

Ibilbidea, bedaiotarrek eginiko eskaera baten ondoren gauzatzen ari den proiektua da. Tolosako Udalarai aurkeztu zizkioten beraien asmoak, eta onartu egin zitzaizkien. Lehen zatia egina badute ere, bigarren zatia falta da. Hala ere, 2012. urte bitartean burutzea espero dute.



Erreka ikusiko da bidean pasatzerakoan. HITZA

Ibilbidearen bukaera, berriz, Abaetxe jatetxearekin lotuko da, bertan, atsedena egiteko aukera emanez. Berreskuratzen ari diren bidearen proiektua bedaiotarrei asko gustatu zaie. «Dagoeneko erabiltzaileak ditu, eta jendea, ibilbide berria oinez egiteko ohitura hartzen ari da», gaineratu

dute. Esan behar da, berreskuratutako bidea, gaur egungo errepide nagusia egin baino lehenago, Bedaioko beheko alde goikoarekin lotzen zuen bidea zela.

Bedaio ezagutzeko beste aukera bat izan daiteke herri bide berri hau.

oalegialdea@hitza.info

Igandeko eta asteleheneko talai dantzan edonork parte har dezake

08:00etan herriko plazan elkartuko dira; gehienak mutilak direla eta, neskei animatzeko deia egiten diete



E. Maiz Amezketa

Ohiturari jarraituz, Amezketan inauterietako igandean eta larunbatean talai dantza egiten dute. Auzoz auzo, baserri berrak eta kalez kale animatzen dituzte bazterrak. Edonork parte har dezake, eta antolatzaileek herritarrei animatzeko deia egiten diete. Aurtien bereziki herriko neskei parte hartzeko joateko deia egiten diete: «Dantza oso erraza da. Hasi aurretik entsegu txiki bat egiten dugu eta horrekin nahikoa da».

Igandean eta astelehenen 08:00etan herriko plazan elkartuko dira. Entsegu txiki baten ostean, igandean, Ugarte eta Zubillaga auzoetan ibiliko dira, eta herrigunea ere pasako dute. Astelehenen, berriz, Bedaiora joango dira eta Amezketakoko baserrietatik pasako dira. 13:00ak aldera aurteko saioak izango dira.

HITZAK eta Orendaingo Udalak hitzarmena sinatu dute

2015. urte arteko hitzarmena sinatu dute; ogia hartzen duten etxetan okinaren bidez banatuko dira aleak

E. Maiz Orendain

Euskarazko tokiko prentsa sustatzeko, Orendaingo Udalak eta TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariak akordioa adostu dute. Hitzarmen horren arabera, HITZAREN edizio bakoitzaren aleak banatuko dira Orendainen ogia jasotzen duten etxe guztietan.


Udalak, Tolosa Herria Hedabideak SMri, komunikazio proiektuagatik, 2012. urterako laguntza emango dio. Hitzarmena sinatzeko, herritarren babesaren bidez

uzal ordezkariek. Guztiak udaltxeko batzar aretoan elkartu ziren. Gorka Egia alkateak eta Jon Mujika Tolosa Herria Hedabidearen kudeatzaileak sinatu zuten hitzarmena. Hilaren 9an, ostegunean, sinatu zuten, Orendainen bertan.

Hitzarmen honen iraupena, legegaldi hau bukatu artekoa izango da, hau da, 2012, 2013, 2014 eta 2015 urteetakoak.

Okinarekin egunkaria etxean

Orendaingo Udalak eskualdeko euskarazko prentsa sustatzeko hartu duen konpromisoa kontutuan hartuta, HITZA egunkariak, Orendainen ogia etxetik banatzen duten hiru okin bidez banatuko du egunkaria. Ogia banatzen den etxe bakoitzean, ogiarekin batera HITZAREN ale banoan banatuko da.



Gorka Egia eta Jon Mujikak herritarren babesarekin batera sinatu zuten hitzarmena. E. MAIZ

Aldiz, orain arte HITZAREN harpidetza kuota ordaintzen duten orendaindarrei, aurrerantzean ere ordaintzen jarraitzeak duen

garrantzia gogoraraziko zaie. Harpidedunek ematen duten laguntza ere ezinbestekoa baita. Bestalde, TOLOSALDEKO ETA LEI-

TZALDEKO HITZA egunkariak egunero Orendaingo Udalararen diru laguntza jasotzen duela adieraziko du.



Antolatzaileek merkatu txikian jende ugari izan dela nabarmendu dute. R. CALVO

Amarozko auzo elkarteak gustura, merkatu txikiak izan duen harrera onarekin

5.400 euro bildu dituzte ekimena zabalik izan duten egunetan, pasa den urtean baino 400 euro gehiago

Iñigo Terradillos Tolosa

Krisiak krisi, «gustura» daude Amarozko auzo elkarteak kideak, «pozik». Izan ere, elkartetik bultzatzen ari diren proiektua laguntzeko antolatu duten merkatu txikiak «oso harrera ona izan du». Hain zuzen ere, 5.400 euro bildu dituzte, asteartetik igandera bitarte iraun duen ekimenean.

Herenegun egin zuten Amarozko auzo elkarteak kideak bilera merkatu txikiaren inguruko balantzea egiteko. Joxepi Artola elkarteak kideak adierazi duenez, «oso balantze» baikorra egin dute. «Jende ugari igaro da bertatik, eta izan diren salmentei esker, 5.400 euro biltzea lortu dugu,

pasa den urtean baino 400 euro inguru gehiago». Artolak dioenez, egositako txorizoa salgai jarri izanak eragin handia izan du, «jende ugari» erakarri baitu. «Merkatu txikian ezekiz, ekaineko eta abenduko azoka berezietan ere jarri ohi dugu mahaia txorizoarekin eta harrera oso ona izaten dugu», adierazi du auzo elkarteak kideak.

Merkatu txikian bildutakoa eta azoka berezietan jartzen duten postuan ateratakoea erabiltzen dute Nikaraguan duten proiektura bideratzeko.

Zortzi urte lanean

Joxepi Artolak dioenez, zortzi urte daramatza Amarozko auzo elkarteak Nikaraguan lanean. «Nikaraguako Malpaisillo herriaren kokaturiko Xochilt Acalt izena duen emakumeen zentrorra bideratzen dugu laguntza azken zortzi urteetan; urte hauetan aurrerapen handiak egin dira eta horrek asko pozten gaitu». Izan

ere, zentroaren egoeraren berri izateko Nikaraguara joan izan dira auzo elkarteak kideak. «Pasa den urtean Amarozko bikote bat izan zen bertan, eta oso gustura itzuli ziren ikusitakoarekin; era berean, bertatik ere etorri izan dira gurera, nolabait gure lana eskertze aldera, iaz, esaterako».

Emakume gazte, heldu nahiz zaharrak aritzen dira hezten zentroan. Alfabetatzearekin hasten dira, eta zentrotik pasatako hainbat emakume unibertsitatera ere heltzen dira. Hauetariko gehienek nekazaritza edo albaitaritza ikasketak egin dituzte, eta gaur egun bere lursailetan lanean ari direla diote elkartetik.

Era berean, genero ikuspegia aintzat hartzeko prestakuntza jasotzen ari dira zentrorra joaten diren emakumeak. Elkartetik adierazi dutenez, bide honetatik, Nikaraguako herrialdi hori garatzeko ekintzaile dira, parte hartzearen bultzatzaile izateaz gain.

Irudia ◊ Ibarra



EROSTEAGATIK SARITUAK

Iragan astean egin zuten Ibarra merkatarien elkarteak Gabonetako zozketaren sari banaketa. Hiru sari zozketatu dira: 300 euro, 200 euro eta 100 euroko txekeak elkarteak dendetan erosteko. 200 euroko txekearen irabazlea agertu ez denez saria eman gabe geratu da. Manoli Berasategik (300 euro) eta Gema Jauregik (100 euro), biak ibartarrak, lortu dituzte beste bi txekeak. Sari banaketan merkatarien elkarteak ordezkarri batek banatu zizkien sariak. Bi irabazleak «oso pozik» agertu dira, eta kutixiren bat erosteko erabiliko dutela txekea azaldu dute. HITZA

→ Laburrak

Dokumentala bihar, eta didgeridoo tailerra, etzi

LEITZA ▶ Atekbeltz gaztetxean Argia emanaldien bigarren saioa izango da bihar. Hain zuzen ere, Lucio igeltsero eta anarkista nafarrari buruzko dokumentala izango da ikusgai, 19:30ean. Etzi, berriz, didgeridoo musika tresnarekin trebatzeko aukera izango da 17:30etik aurrera antolatu duten tailerri esker. Bestalde, lantegi hori bukatu ostean, 20:00etan, beatboxa, muxugitarra eta beste hainbat instrumentu didjeridooarekin nahastu dituen Iban Nikolainen kontzertuaz ere gozatu ahalgo da Atekbeltzen.

Euskal Herria Eguna antolatzeko batzarra

IBARRA ▶ Algortan irailean egingo duten Euskal Herria Eguna antolatzeko bilera izango da martxoaren 10ean. Bilera honetara senidetuta dauden Ibarra-ko, Lizarrako eta Algortako elkarteak eta herritarrak daude deituta. Goizean batzarra egingo dute, eta ondoren, Hernanin bazkalduko dute sagardotegian. Parte hartzeko Subegin eman beharko da izena.

San Bartolome jaietako argazkien erakusketa

IBARRA ▶ Martxoaren 2ra arte ikusgai dago Ibarra kultur etxean iazko San Bartolome jaietako argazkiekin osaturiko erakusketa. Argazkien kopiak eskatu ahal dira, 50 zentimo ordainduta bakoitzarengatik.

◉ Hilberriak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



IZASKUN BALERDI AROZENA

Urak dakarrena urak daroa zuk emandakoa gurekin gelditzen da

Beti gurekin izango zara

MONTESKUKO OLARIAGA FAMILIA



IZASKUN BALERDI AROZENA

Otsailaren 14an hil zen. 52 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkapena hartu ondoren.
- Goian bego -

Bere senarra: Jose Ramon Aldasoro; seme-alabak: Olatz eta Joseba Astiasaran; gurasoak: Pedro (†) eta Martina (†), anaia: Jose Ignacio (†); ezkon gurasoak: Gregorio eta Pilar (†); ezkon anai-arrebak: Maria Pilar eta Julian Munduate, Mari Jose (†); ilobak: Ainhoa eta Gorka Ruiz; lehengusuak eta gainerako ahaideak. Haren arimaren alde, otoitz bat eskatzen dizue, eta arren etor zaitzela, ASTEAZKENEAN arratsaldeko ZAZPIETAN, Ibarra SAN BARTOLOME parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Julian Gayarre, 25.

Oharra: Gorputz belia Tolosako FUNERARIA ORIA TANATORIOAN egongo da ASTEAZKENA arratsaldeko 16:15ak arte.

Ibarra, 2012ko otsailaren 15a



GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	10°
HOTZENA	6°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeca Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Teléfonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.
Anoeta/Aldea: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 36 49
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

●● agurrak

Irudia Tolosa



ZEZEN FESTETAKO SARRERAK, AGORTUTA

Tolosako Udalak jakinarazi duenez, bukatu dira jada Leidorreko leihatilan Inauterietako zezen festetarako salgai jarritako sarrerak. Herenegun hasi ziren saltzen, eta ilara luzeak egin ziren Leidor inguruan, pertsona batzuk bi orduz ere egon ziren

ilaran. Sarrerak erosi nahi dituenak, hala ere, izango du beste aukerarik; zezen festen egunetan bertan zezen plazako leihatilan edukieraren %10a jarriko baitute salgai 11:00etatik 13:00etara, eta 15:30etik aurrera. I.TERRADILLOS

Agenda

DEIALDIAK

- **Anoeta.** Sendabelarren oinarriko ikastaroa antolatu du udalak. Amaia Bastarrikak emango du, otsailaren 23tik martxoaren 29rako ostegunetan, 17:00etatik 19:00etara. 50 euro balio du ikastaroak eta izea otsailak 17a bitarte eman daiteke udaletxean goizez, liburutegian arratsaldean, edo kiroldegian.
- **Asteasu.** Aurrekontuen berri emateko bilera egingo du udalak gaur, 19:00etan, udaletxeko bideo aretoan.
- **Villabona.** Bertsozale Elkartearen Umorez Jardunaldiak antolatu ditu Mintzolanera eraikinean. Lehen saioa bihar izango da 18:00etan hasita. Bigarren saioa, aldiz, datorren ostegunetan izango da, otsailak 23, ordu berean hasita.

ERAKUSKETAK

- **Ibarra.** Azken jaietako argazkiak biltzen dituen erakusketa ikusi daiteke kultur etxean martxoaren 2a arte. Argazkiren baten kopia nahi duenak harreraren bertan egin behar du eskaera eta kopia bakoitzeko 0,50 euro ordaindu.

Inauterietan **hitza** info egunero argitaratuko dugu!

Bizi inauteriak **hitza** info rekin!

Sartu **tolosa.hitza.info** webgunean eta **Inauterien atalean** informazio guztia izango duzu: egitaraua, albisteak, elkarrizketak, bideoak, bitxikeriak, garraio publikoaren inguruko informazioa

Argazki Lehiaketako argazkiak ere bertan aurkituko dituzu. Irudiak bidaltzeko azken eguna martxoaren 9a izango da, eta saridunak Bizkaiko Ajangiz herrian dagoen Astobieta **nekazalturismoan bi pertsonentzako** gau bateko egonaldia irabaziko du.

Eta gogoratu Ostegun Gizeneko **txupinazoa zuzenean** jarraitu dezakezula, **tolosa.hitza.info** webgunean.

Elketa Jatetxea



Inauterietako menu berezia

Etoko foie terrina fruitu gorriekin
Iberiar urdaiazpikoa
Txanguro, aguakatea eta olagarroz
eginiko entsalada epela
Ondoa risottoa
Garaiko barazkiak urdaiazpikorekin
Zapo, ezkira eta muskuluz beteriko
krepa, marisko saltsarekin

Legatza melatua
Txibiak pelayo erara
Txekor masailak gisatuak
Txuleta zatiak pikiloekin
Etoko tartak
Brownie-a krema ingelesarekin
Mandarinazko cava sorbeta
Kafea, etxeko kulantza, sagardoa
eta ura bane

Prezioa: 30€
(bez-a barne)

- Eguneko menua
- Plater konbinatuak
- Asteburuko menu berezia
- Adosturiko menua

Enkarguz:

- Taldekako babarrin jatea
- Txerrikumea • Arkumea

ERRESERBA EGITEKO:

San Miguel bailara, 2 • Hernialde •
943 65 21 16
elketajatetxea@hotmail.com